

## EMAKUMEAK IDAZLE DURANGERRIAN

*Durango, 2003-XII-08*

*Jose Luis Lizundia*

Durungaldeko idazleen artean emakume idazle gutxi aurkituko dugu, ohiko izanik ere, anormala den bezala. Gizonon oraintsuarteko hegemonia arlo guztietara hedatua izan delako, noski. Euskaltzaindian bertan ere, 24tik osoetatik bat bakarra dugu, nahiz eta batzordeetan geroago eta gehiago izan. Real Academia Española-n ere orain hogeitamar bat urte sartu zen lehenengokoa.

Durungaldeko idazleen artean lehendabizikoz emakume bat sartu zuena, Nikolas Alzola Gerediaga izan zen, haren *Cien autores vascos* liburuan: N. De Cortazar, Editorial Auñamendi, Donostia 1966. Urte honetan bertan, abuztu-iraileko *Gerediaga* aldizkarian, Juan San Martinek «Escritores euskéricos del Duranguésado» artikuluan ia bateratsu eman zion segida eta, gero txoago, Juan San Martinek berak, *Escritores euskericos*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, liburuan, errepikatzen du Durungaldeko, emakumeen sarrera.

Nor da emakume hori?:

**1. Julene Azpeitia Gómez.** Hau izango litzateke Durangerriko euskal idazlerik gailurrena, nahiz eta zumaiarra izan sortzez. Gerra aurrean Abadiñon bizi izan zen, Abadiño-Zelaietan eta Astolan. Ostean erbesteratze eta urruntzen ondoren Durangon igaro zituen azken urteetan, Larrasoloetako txaletxo batean. Egia esan, azkenak, bere buruaz baliatu ezinean joan zen Bilboko bere seme «Endikatxu maitearen» etxera. Haren idazlan oparoaz zer esan? Zumaiako Udalak, orduko zinegotzi, irakasle eta saiogile saritu den Jon Sdupe Martija eta bion eraginez *Julene Azpeitia eun urte mugan (1888-1988)* liburua dakart hona. Zazpi egilek parte hartu genuen. Liburuaren azkenean bibliografia ugari-ugaria, seguru asko ez da Euskal Herrian XIX. mendean jaiotako hainbeste euskaraz idatzi duen emakumerik izango. Ez da harritzekoa 1975an, Emakumearen Nazioarteko Urtean, Gabriel Aresti zenaren proposamenez hiru emakume idazle omendu zituenean Euskaltzaindiak, bat, Julene izatea. Hara hor nire artikuluan zer jaso nuen, urte horren ekainaren 27an, Gipuzkoako Diputazioan, euskaltzain ohorezkotzaren diploma hartu zuenean, nola eskertu zion A. Luis Villasanteri Julenek berak:

«Esan bear det baita ere, neri inoiz galdetu didatenean: Aizu, berriz jaioko baziñake zer karrera artuko zenduke? Nik beti erantzun det: Maistren karrera. Milla bider jaioko ba'nintzateke ere..»

Doña Juliana, hala deitzen zioten Traña-Matiena haren ikasleak, nire osaba-izebak tartean, hurbiletik ezagutu nuen eta Larrasoloetako haren etxean solasaldi interesgarriak egin. Tamalez ez nituen grabatu. Gerra aurreko abertzaletasun-euskaltzaletasun ahuleziaz bere arrangurak agertu zizkidan, ez zen, orduan ere, dena urre kolorezko, politikoak tartean. Aurten irratitari Gerediagak dedikatu dion moduan, gaineko urteren baten euskal irakaskuntzari eskainiko baleuskio, Doña Juliana maistra eta Julene idazlea izango litzateke, eta ez Durangaldean bakarrik, gailurrenetariko bat, dudarik gabe.

Haren idazle lanez luza mintza gaitzke. Laburrena haren bibliografia eranstea litzateke, hara hor:

- *Irakurri maite. Lenengo ingurraztija*. Eusko Ikastola Batza. Bilbo, 1932. bi libururi, bata euskaraz eta bestea, gaztelaniaz.
- *Umien idaztija*. Bilbo 1961.
- *Osasuna, merketza ta yanaritzaz*. Bilbo, 1935.
- *Amandriaren altzoan*. Zarautz, 1961.
- *Zuentzat (Aurrentzako ipui ta irakurgaiak)*. Donostia, 1974.

Bost liburu argitaratu zituen, beste hiru argitara gabeak: *Instituciones peri y post escolares que pueden crearse en las Escuelas de Barriada en Vizcaya. 1921*; *Lección práctica sobre las virtudes y excelencias del ahorro* eta *Dibujoaren eta idaztearen bitartez irakurtzen erakustea*.

Beste ehun eta hirurogeitamar artikulutik gora eta idatzi zituen egunkari eta aldizkari desberdinetan, noizbait, norbaitek, nonbaiten bildu eta berrargitaratzeko zain. Astolako Auzitegian bizi izan bai zen 1937arte, ez ote lirateke bertan egoitza duten erakunde bi arduratu behar horretaz? Alegia, Gerediaga Elkarte, paratzaile eta Durango Merindadeko Amankomunazgoa, babesle?

\* \* \*

**2. Errose Bustintza Otzerin «Mañariko».** Bai Altzola eta bai San Martin luzaz eta xehetasunez ari dira mañariar emakume idazle honetaz. Labur bilduz ikus dezagun zer zioen Nikolas Altzolak 1963an («Errose Bustintza Otzerin, «Mañariko» eta «Mañariko Errose» *Euskal Literaturan*):

«euskaraz asko eta ondo idatzi daben idazle bat dogu. Batez be idatzi ebazan elezar antzerako kontuak dira aipagarrienak. Bere buruz asmetan ebazan kontu politak, asmakizun aundia eukalako. Erriko jendeak agoz ago erabilten dabezan sorgin-kontuen antzerakoak egiteko euki eban ekarri aparta. Aranaren eskolakoan zan. Itz barriak ugari ibiltzen ebazan, baiña esaeratan-da aberastaun aundiko euskera dauke «Mañariko»ren lanak. Gerra aurretik *Euzkadi* egunkari-

an argitaratu ebazan bere gauzarik geienak. Sari bat be irabazi eban, eta omenaldi bat egin eutsen Manarian. Gerra ostean *Gernika*, *Karmel* eta *Aranzazu* aldizkarietako anbat gauza idatzi ebazan».

Juan San Martinek, ordea, *Gerediaga* aldizkariaren 4-5 zenbakian, 1966ko abuztu-irailekoan, beste honako hau idatzi zigun, «Escritores euskéricos del Duranguesado» artikuluan:

«Rosa Bustinza, conocida con el seudónimo «Mañariko» (1899-1953), de Mañaria. Sobrina y discípula de Kirikiño. Rosa, al igual que su tío, escribió numerosos cuentos, que han visto la luz desperdigadamente en diversas publicaciones, principalmente en *Jesus'en Biotzaren Deya...* Rosa, también escribió algunas poesías y cantares. Toda su obra bien merece ser fundada en un hermoso libro».

San Martin euskaltzainaren gurari hori ia erabat gauzatu zen urteak geroago, zeren eta 1991ean, «Gero-Ediciones Mensajero» haren ipuinen bilduma eder bat argitaratu baizituen, Jaime Kerexeta eta Simún Odriozolaren ardurapean.

\* \* \*

**3. Basille Bustintza Otzerin.** Hau ere aipatuko nuke neure kontutik. Basille Erroseren ahizpa zen eta Kirikiñoren emaztea. Senarra baino hogeitakak urte gazteagoa, biok ziren, bestalde, Evaristo Bustintza «Kirikiño»ren ilobak. Basille ezagutu nuen eta ordu zenbait berarekin jardun ere. Ahizparen mailakoa ez zen, bistan denez, baina berak ere euskaraz idatzi zuen gerra aurrean, ostean, bildurra ez, dardara ere hezurretaraino sartuta zeukan. Haren eskuizkribu zenbait, olerkitxo batzuk, tartean, *Gerediaga* Elkartearentzat eman zizkidan eta, agian, Astolako Auzitegian egon daitezke, lapurketaren batengatik galdu ez badira. Hara hor, honetaz ere, lehengo artikulua berean zioena:

«Basille Bustintza be euskal olerkaria dogu. Apaltasun aundiko andrea izan da beti, eta bere burua ez erakustearren ez dau gura izan bein bere izenagaz agertzerik olerkiak. Ezetan be ez neuke mindu gura Basilleren apaltasuna, baiña euskaldun kontzientziak eskatzen deustalako ezin dot isildu: parkatuko deust Kirikiñoren alargunak euskal olerkarien artean bere izena ipinten dodalako».

(Argitu behar da Nikolasek hau idatzi ebanean oraindik bizi zala Basille Bustintza).

\* \* \*

**4. Miren Maortua Garitzelaila.** Zaldibarren jaio zen 1916 urtean eta, elizate berean hil, 1971an. Haren lanen berri Balendin Lasuen, zaldibartar idazle eta *Gerediaga*ko lehendakari-ohiak ematen digu, besteak beste, pasarte hauekin:

«Gerra osteko dictadura sasoian –1953an izan zelakoan nago– «Etxe-eskola» sortu zuen bere etxean, «eskolaurre» moduan ezagutzen dugunaren parekoa.... Zaldibarko emakume horren euskarazko produkzioari erreparatuz gero, hainbat argitalpenetako kolaboratzaile izan zela ikusiko dugu. Honen argitalpen hauetan

argitaratu zituen bere lanak: *Euzkadi egunkarian*, *Euzko eta zeruko argia* astekarrietan, *Ekin* zein *Karmel* aldizkarietan eta *Arrate* irratian. «Aberri-lore» eta «Al-dakaitz» ezizenak erabiltzen zituen bere idazkiak idazteko.

Haren iloba Josu Maortuak esaten zigun oraintsu, osasun eskaseko gizakumea zela, baina, gaisoaldi guztiakin euskalgintzari lotua urte zail haietan- ilobagandik familiak gordetako idazlan pare baten kopia jaso ditut, bata, 1932ko *Euzkadi* egunkariko eta, bestea, Zaldibarko Goierrri auzoari eskainitako bertsoak, data bakoa, baina izenburu honekin:» Goyerrri deritxayon auzotegiari ateriak».

Josuk esan zidan, eskola gutxikoa zela bere izeko Miren!

\* \* \*

**5. Margarita Untzalu «Amagoia»**, Hau durangarra. Berari buruzko aipamen laburrak Mercedes Ugalderen doktorego tesitik, hots, *Mujeres y nacionalismo vasco, Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza, 1906-1936* delakotik eta Roman Berriozabalen *Nacionalismo vasco en Durango (1893-1937)* liburutik jaso ditugu. *Euzkadi* egunkarian idazten omen zuen gure Margaritak, «Amagoia» izenordearekin. Zumaian, 1930ean, sortutako «Federación de Escritores Vascos» delakoan, Orixek zioenez, Elviria Zipitria famatuaren eta Rosa Bustintza «Mañariko»rekin batera, gure «Amagoia» agertzen da. Zer idaz emaitzarekin? Ikertzeke dago. Ugalderen tesia politika alorretik enfokatu baitago gehiago, literaturatik baino. Ugaldek, oin-oharreen aipatzen duenatariko bat, «Amagoia» izan zela dirudi:

«En el verano de 1930, con el objeto de impulsar el conocimiento y la utilización del euskera mediante sus escritos, tuvo lugar en Zarauz una reunión de 12 mujeres escritoras en lengua vasca. Otras no pudieron acudir y se disculparon por ello.»

Kosta zaigu nor zen jakitea Amagoia hau. Eskerrak Maitena Belaustegigoitia, jakin ditugu haren izen-deiturak, Margarita Untzalu, non hil zen, Lapurdiko Bidarte herrian zegoen ospitalean, hemendik erbesteratu eta gero, baita ere, noren emaztea zen, Gregorio Ruiz Ertzilla «Gogorra» ELAko idazkari nagusiarena. 1964an, Baionako «Villa Izarra»n ezagutu genuen Gogorra, gero, berriz, hiriburu horretako Euskal Erakustokian, Euskaltzaindiaren Urre Eztaien Iparraldeko ospakizunean. Azkenik, bakardaderik nabarmenean, Garaziko eskualdeko Izpurako hilerrian zendu eta obiratua izan zen.

\* \* \*

**6. «AGURTZANE»** bat agertzen da aipaturiko tesi horretan, besteak beste, *Euzkadi* egunkariaren Elorrioko Korresponstsal legez. Nor ote? Arruabarena elorriar ikerleak azter beza.

\* \* \*

7. «**SORKUNDE**». Nor zen Berriozabalen eta Ugaldereen liburuetan hainbeste aldiz agertzen den idazle hau?. Dozena bat laguni galdetu diogu eta alperrik. Inork ez daki bere izenik. Bereziki, Roman Berriozabali galdetu diogu baina berak ere ez du ideiarik. Gizonezko bat izatea ere baliteke, zaila badirudi ere, zeren eta Concepción izeneko emakumerik ez da agertzen eta, bestalde, izen horren Aranaren *Deun ixendegi* an agertzen den ordaina *Sorne* baita. Durangarra izango zen edo, gutxienez, uri honetan bizi zena, zeren eta *Euzkadi* egunkariaren korrespontsala bai zen. Badirudi, garaiko purismo batzuk gora-behera uri honetako euskara erabiltzen duela, aditzean igartzen zaio, adibidez. Antzerki, euskal eskola eta abarretan ere bazebilela. Hara aipamen batzuk:

«Comisión de Euskera. A primeros de setiembre de 1935 se constituyó la Comisión de Euskera del Batzoki Tabiratarra... -eta «Sorkunde» berak idazten du *Euzkadin*: egon da bihar izana. Uri erdera-zale onetan geure izkuntza jaso bihar dogu. Txalo ugarijak joten dautsabedaz gazte ta zar, gustijoi, ta lanari ekin gero».

Gerra denboran agertu zen lehen egunari euskaldunean, *Egunan* ere agertzen da haren sinadura.

\* \* \*

8. **Iñese Munitxa Berriozabalgaitia**, abadiñarra. Muntzaratz auzoan jaioa, maistra, gerra aurrean irakasle aritua, gero, eskola umeekin Ingalaterrara igorria, 1937an. Eusko Jaurlaritzaren aginduz eta, ezkenik, Venezuelara erbesteratua eta hango hiriburuan, Karakatxetan hil zen. *Euzkadi* egunkarian eta beste aldizkari batzuetan idazten omen zuen, ugari, gainera, baina ez dugu modurik izan ikerketa sakontzeko. Une honetan badira Abadiñon euskal filologian lizentziatuak ere, Muntzaratzen bertan ere, oker ez banago eta mereziko luke exilioan zendutako Munitxeneko alaba honek ikerketa zehatz bat. Une honetan eta, ordua zen, gerran eta gerra ostean erahildakoen oroimenaz arduratzen zaizkigu historialari eta elkarteak. Noizko, ordea, erbesteraturiko idazle, artista, intelektual, irakasle euskal kulturarentzako zer galera suposatu zuen nabarmenduz?

\* \* \*

9. **Maitena Belaustegigoitia Ortueta**, durangarra. Federiko Belaustegigoitia audioar seme ospetsuaren alaba, igazko abenduan, Euskaltzaindiak eta Audioko Udalak omendu genduarena, hain zuzen. Maitenak, *Zer*, *Deia* eta *Agur*-en idatzi du. Beronen azkenengo idazlantxoak, *Euskera* 2003, 1 agerkarian ikus genezake: 165-178.orr.

\* \* \*

10. **Rosa Mari Artza Azueta**, ihurretarra. Euskaltzaindiaren argitalpen banaketa arduradunak, inoiz edo behin *Anaitasunan* eta Durangaldeko zenbait

aldizkaritan idatzi zuen, baina aurretiaz Bizkaiko *Herri Gaztediren* arduradun zenean, mugimendu horretako aldizkarietan.

\* \* \*

**11. Kristina Mardaras Cedrun**, herriz zornotzarra, baina elizaz eta sentimentuz ihurretar den honek ere *Herri gaztedin* idatzi zuela esan dit, baita ere *Anaitasuna* eta eskualdeko zenbait aldizkaritan. Ezagunagoa da ordea herri literatura mailan, nik dakidala Euskal Herriko lehen bertsolari emakumea baita. Eskatu diot haren lanen zerrenda bat egitea.

\* \* \*

**12. Eskarne Aroma Lejarreta**, durangarrari ere gauza bera eskatuko neuskio. *Anaitasuna* eta *Zeruko argian* bere idazlanak irakurri ditudala esango nuke. Baita eskualdeko aldizkarietan ere. Ezagunago dugu, ordea, bikoizketa lanetan.

\* \* \*

**13. Marisa Barrena Larruzea**, sortzez zornotzarra badugu ere, urte askotan Durangon bizi da. Honen lanek Kristina eta Eskarneren antzeko bidea izango dute. Onuragarria litzateke euskalgintzako beronen *curriculum* bat burutzea.

\* \* \*

**14. Aitzpea Azkorbebeitia Aldaiturriaga** izango litzateke nire gaurko hitzaldiko azkena, kronologikoki oraintsuengoa delako. Beraren ustez ez nuen sartu behar, literatura alorreko idazlea ez delako kontsideratzen, baina esan nion oker dabilela, zeren eta hitzaldi hau eskualdean, euskaraz, idatzi dutenen emakumeak omentzeko da, nolabait esanda. Eta horregatik euskal ikerketetan diharduten azken fitxajeak hona ekartzea, ez bakarrik zilegi, onuragarri ere bada. Hara hor haren biobibliografiaren laburpen bat: «Metafora literatur kritikarako lanabes gisa: B. Atxaga eta J. Sarrionandia» gaitzat hartuta bere doktoraduratzako tesia egiten dihardu; «Ikertzaileak prestatzeko» Eusko Jaurlaritzaren beka irabazi zuen, baita ere Zornotzako udalaren «Santiago Onaindia»ren 1997ko beka ere, berau, titulu honekin udal berak argitaratua: «Joseba Sarrionandia, irakurketa proposamen bat». Beste hamar lan ere argitaratuak ditu, *ASJU*, *Egan*, *Txalaparta*, *UEU*, *Lapurdum*, *Gara* eta *Hegatsen*, gehienak Joseba Sarrionandia idazleari buruzkoak. Literaturaz emandako hitzaldi sorta oparoa ere aipagarria da. Ondorioz eta, bukatzeko, Azkorbebetia andreak, oraindik hogeitamabost urte baizik ez baititu, emaitza oparoa eman diezaioke euskal literaturari.